

# Emakumeekiko indarkeriaren aurkako toki-ekintzako I. Protokoloa Antsoainen

Antsoaingo Udala  
2011ko Azaroa



**Emakumeekiko  
indarkeriaren aurkako  
toki-ekintzako I. Protokoloa  
Antsoainen**

**Antsoaingo Udala**

2011ko Azaroa

Antsoaingo Udalarentzako  
Abella Legal-ek garatutako protokoloa

# AURKIBIDEA

1.	<b>Udal erabakia</b>	<b>7</b>
2.	<b>Antsoaingo Protokoloa</b>	<b>15</b>
	2.1 Zein dira printzipio gidariak?	15
3.	<b>Eragile arduradunak Antsoaingo emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan. Eginkizuna eta konpromisoak</b>	<b>17</b>
	3.1 Berdintasunerako Zerbitzua	17
	3.2 Udaltzaingoa	18
	3.3 Osasun zerbitzuak	20
	3.4 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak	21
	3.5 Enplegu Zerbitzua	22
	3.6 Ikastetxeak	23
	3.7 Gazteriaren Etxea	24
	3.8 Beste entitate batzuk	24



## 1. Udal erabakia

Antsoaingo Udalak, 2011ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko tokiko protokoloa, 2011ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 13koan, argitaratu zena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean ez denez erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu, behin betikoz onetsirik gelditu da Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko tokiko protokoloa, eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Antsoainen, 2011ko azaroaren 4an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Honako hauek batzarturik:

**Antonio Gila Gila**, Antsoaingo Alkatetzaren ordezkaria.

**M.ª José Elizondo Urtasun**, Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen, Hzkuntzaren eta Berdintasunaren Batzordearen ordezkaria.

**Carlos Ceballos Itoiz**, Antsoaingo Udaltzaingoko burutzaren ordezkaria.

**Koldo Pla Larramendi**, Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Gizarte Zerbitzu Oinarritzkoen Mankomunitatearen ordezkaria.

**Lourdes Echeverria Lizarraga**, Antsoaingo Osasun Etxearen ordezkaria.

**Marivi Mendiburu Belzunegui**, Antsoaingo Adimen Osasuneko Zentroaren ordezkaria.

**Ione Urrutia Riezu**, Ezkaba Ikastetxe Publikoaren ordezkaria.

**Eva Istúriz García**, Antsoaingo Berdintasunerako Zerbitzuaren ordezkaria.

## Adierazi dute

- Emakumeen aurkako indarkeriak modurik larrienean urratzen ditu giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak. Norberaren errealizazio osoa galarazten die emakumeei, hazkunde ekonomikoa murrizten du eta garapena eragozten du.
- Gizonen eta emakumeen arteko botere harremanetan dagoen desoreka erakusten du, eta desoreka hori jendarte demokratiko ororen garapenerako oztopo nabarmena izateaz gain, emakumeak azpiratu eta baztertze tresna izan da.
- Ugariak dira emakumeen aurkako indarkeria motak eta ugariak dira orobat indarkeria hori jasaten duten emakumeen esperientzia pertsonalak, faktore ugari baitaude tartean, hala nola jatorri etnikoa, gizarte maila, adina, sexu-orientazioa, desgaitasuna, nazionalitatea eta erlijioa.
- Seme-alabak ditugu biktima ahantziak, emakumeen aurkako indarkeriaren lekuko diren aldetik. Indarkeria horren ondorio zuzenak pairatzen dituzte (depresioaren sintomak, beldurrak, loaren nahasteak, sintoma erregresiboak, integrazio eta sozializazio arazoak, etab.) eta jasan egin behar dituzte, halaber, botere-desberdintasuna, amaren azpiratzea eta belaunaldien arteko indarkeriaren transmisioa dakartzan ingurune batean garatu izanak dakartzan ondorio guztiak. Seme-alabek esku-hartze zehatzagoa behar dute, neurri egokiak hartu eta baliabideak jarri behar baitira haien eskubideak betetzen direla eta haien interes behinena zaintzen dela bermatzeko beti<sup>1</sup>.
- Emakumeen aurkako indarkeria jendarte patriarkaletako egiturazko fenomeno da, gizonek emakumeak azpira ditzaketela eta haietaz abusatu dezaketela justifikatzen duten balio eta arau soziokulturalak oinarri dituen. Nagusi

1. Ikus Haurren eskubideen gaineko Konbentzioaren 19. artikulua eta Europako Kontseiluaren 1714 (2010) Ebazpena.

den sistema patriarkalak normaltasunaren itxura eman dio indarkeriari, gizona emakumearen gainetik dagoela uste izan delako eta horrek bat egiten duela eginkizun desberdinen esleipenarekin. Sistemaren barnetik sortzen da eta diseinaturiko eredu horren azpian elkarbizitza egonkortzeko osagai bilakatzen da. Kontrol sozialerako tresna da, desberdintasunari eutsi eta betikotzeko tresna.

- Bereizkeria desagerraraztea da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko modu bakarra. Indarkeriari aurrea hartzeko ezinbestekoak dira emakumeen giza eskubideak sustatzea eta babestea, berdintasunaren sustapena sendotzea eta emakumeen ahalduntzea.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren arazoari ez helteak ondorio larriak dakarzkie bai emakumei bai seme-alabei baita esparru sozial, ekonomiko eta politikoei ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko termino asko erabili dira, eta terminologia hori etengabe aldatuz doa: genero-indarkeria, familia barreneko biolentzia, etxeko indarkeria, sexu indarkeria, indarkeria matxista... Hizkuntzari begira, indarkeria hori ez da errealitate berria, berraurkitua baizik, eta kontua hau da: izena ematea patriarkatuak onartu eta jendarteak estali duen delitu jakin bati. Beraz, emakumeen aurkako indarkeria terminoak bere baitan biltzen du oro har emakumeen aurka emakume izate hutsagatik erabiltzen den indarkeria, gertaleku guztiak kontuan hartuta (bikote harremanak, familiartea, lana, gizartea eta komunitatea).
- Honako protokolo hau alde aurreko diagnostiko baten emaitza da. Arlo honetan esku hartzen duten zerbitzuetan dauden gabeziak eta beharrak hauteman ziren bertan.

Araudietan eta politika publikoetan aurrerabide asko egon dira azken urteotan <sup>2</sup>.

Nazioartean, honako hauek ditugu emakumearen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzeko tresna ezinbestekoak: Emakumearen aurkako bereizkeriari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1979), Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa (1984), Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena (1993), Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995) eta Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren Aukerako Protokoloa (1999). NBE-Emakumeak erakunde sortu berria gogotik ari da lanean emakumeen aurkako biolentziaren gaia aztertzen, erakundearen foku-arloetako bat baita.

Eurostaten arabera, Europan 700 - 900 emakume inguru hiltzen dira urtero indarkeria horren ondorioz. Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak aintzat hartu dute errealitate hori eta, hainbat testuren bitartez, gaiari garrantzi handiagoa eman diote garatu dituzten politiketan. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Europako Parlamentuko Ebazpenak, 2008ko irailaren 3an onetsiak, honela dio: "emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragozten duen oztopo nagusietako bat da eta giza eskubideen urratze zabalduenetako bat, eta ez dauka muga geografiko, ekonomiko edo sozialik; kezkarria da, orobat, indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua...". Gero berriz dio "garrantzizkoa dela emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearren; estatu kideei eta Batzordeari eskatzen die arlo horretan batera jarduteko; eta Batzordea hertsatzen du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurri berriak har ditzan".

Estatuko legeriari dagokionez, honako hauek izan dira azken urteotan onetsi diren legerik garrantzitsuenak: 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Hiritarren segurtasunari, etxeko indarkeriari eta atzerritarrek gizarteratzeari buruzkoa; 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena; eta, azkenik, 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, garrantzi handiko mugaria izan dena. Diziplina anitzeko ikuspuntu batetik helden dio gaiari, hainbat alderdi hartzen baititu kontuan: hezkuntzakoak, sozialak, prebentziokoak, laguntzakoak eta ondoko arretari dagozkionak. Lege horrek kanpo utzi ditu emakumeek jasaten dituzten zenbait indarkeria mota, eta ez du berariaz lantzen indarkeria hori zuzenean zein zeharka jasaten duten seme-alaben beharren auzia. Gero, bestalde, Emakumeen

**2. Emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko borrokaren esparruan garrantzizkoak diren arauen laburpena. Oso lan luzea litzateke beste alderdi batzuk direla-eta (arraza, adina, sexu joera, desgaitasuna...) haiengan eragina duten legeak aipatzea.**



eta Gizonen berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa etorri da, martxoaren 22koa, baita berrikitan Kode Penalaren aldaketa ekarri duen ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa.

Erakundeen arloan, berriz, Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza eta Emakumearen gaineko Indarkeriaren Estatuko Behatokia sortu dira, eta emakumearen gaineko indarkeriaren auzietarako epaitegiak, fiskaltza espezializatuak eta ofiziozko txandak eratu dira, besteak beste, baita jarduketara eta koordinazio protokolo ugari ere.

Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoan (2008-2011), Indarkeria izenburua daraman hamargarren ardatzak honako helburu hauek aipatzen ditu, besteak beste: emakumeendako laguntza osoa hobetzea; genero indarkeriaren biktimak jasotzen duten babes polizial eta judiziala sendotzea; genero indarkeriako kasuetan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza eta espezializazioa indartzea; erakundeen barneko eta erakundeen arteko koordinaziorako prozedurak sustatu eta sendotzea, genero indarkeriako kasuetan erantzuna eraginkorragoa izan dadin.

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren estatistiken arabera, 2010. urtean 73 emakume<sup>3</sup> erail zituzten beren bikotekide edo bikotekide ohiek. Atzerritarrek ziren haietarik 28, hildako guztien %38,3 alegia. Indarkeriak modu lazgarrian eragiten die etorkinei. Biktima atzerritarren eta erasotzaile atzerritarren kopurua oso handia da, handiegia Estatuan bizi diren atzerritarren kopurua kontuan hartuz. Zorigaitzoko errealitate horri heldu, eta desagerrarazi beharra dago.

2010ean, Nafarroako Foru Komunitatean 1.210 salaketa jaso ziren: horietarik 374, indarkeria fisikoagatik; 122, indarkeria psikikoagatik; 315, indarkeria fisiko zein psikikoagatik; 136, sexu indarkeriagatik, eta 262, bestelakoengatik (hertsatze auziengatik, urruntze aginduak urratzeagatik...). Nafarroan ere aipatu joera hori nagusitu da eta hainbat lege onetsi dira, honakoak, besteak beste: uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa, eta hura erregelamendu bidez garatzeko dekretua: 16/2007 Foru Dekretua, otsailaren 26koa; martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea, 22/2002 Foru Legea aldatzen duena, eta abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010) izenekoaren 9. arloak emakumeen aurkako indarkeriaz dihardu. Funtsezko hiru helburu azpimarratzen ditu: emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko neurriak ezartzea; emakumeen aurkako indarkeria egoerak hautemateko eta haietan laguntzeko eta esku hartzeko bitartekoak hobetzea eta indarkeriaren biktima diren emakumeak artatu eta babesteko baliabide eta zerbitzu nafarrak egokitzea.

Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioa sinatu da berrikitan. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzen eta biktimak osoki artatzen laguntzeko beharrezkoak diren legezko jarduketan eta polizia, osasun zein gizarte arloko jarduketan euskarria da akordio hori.

Antsoaingo udalerritari dagokionez, 2003an, Dora Angulo erail zuen senarrak. Nafarroako Berdintasunerako Institutuko datu basearen arabera, Antsoainen bederatzi salaketa aurkeztu ziren 2006an, zazpi 2007an, hamabi 2008an eta hamasei 2009an, urterik urte gero eta gehiago alegia. Antsoaingo Udaltzaingoak dio 2008an hamahiru salaketa jaso zituztela, bi 2009an eta lau 2010ean. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, aldiz, bestelako datu batzuk daukate, izan ere zerbitzu haietara jotzen duten emakume guztiek ez dute azkenean ez salaketarik ez babes agindua lortzeko eskaerarik aurkezten. Halako datuak zorrotz eta tentuz aztertu eta balioetsi behar dira beti, aurkezturiko salaketen kopuruak edo eraildakoen kopuruak erakusten dutena baino larriagoa baita arazoa, batez ere kontuan hartuz ezen emakume anitzek ez dutela sekula salaketarik jartzen eta beste batzuek zortzi-hamar urte behar dituztela bikotekideak salatzen. Bestetik, kontuan hartu beharra dago badaudela emakumearen aurkako bestelako indarkeria mota batzuk, legerian jasota egon ez arren emakumearen aurkako indarkeria direnak, halere.

3. Indarkeria matxistaren beste kasu batzuk ere badaude, baina ez dira estatistika honetan jaso, giza hitzaile edo eraileak ez zirelako bikotekideak edo bikotekide ohiek. Horiek kontuan hartuz gero, emakume erailen urteko kopurua handitu egingen litzateke.

Bestalde, emakume batzuen babesgabetasuna are handiagoa da, era askotakoa delako pairatzen duten bereizkeria. Halaxe gertatzen zaie, adibidez, biktima atzerritarrei: gizarte, kultura eta hizkuntza alorreko oztopoengatik, herrialdean sare sozialik ez izateagatik eta duten administrazio egoerarengatik, are nekezago egiten zaie gisa horretako salaketak tramitatzea.

Antsoaingo Udalak honako azterlan hau egin zuen 2007-2008an: "Antsoaingo genero egituraren azterketa. Gizartearen diagnostikoa Udalaren esku hartzeari begira". Bertan, genero indarkeriari buruzko eta arriskuan dauden emakume taldeei buruzko atal bat egoteaz gain, Udalean Berdintasunaren Alorra eratzeko beharra nabarmendu zen. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko I. Plana ere onetsi du eta emakumeen aurkako indarkeria zeharkako alorra dela finkatu da bertan. Planak Udaleko zerbitzuen artean eta erakundeen artean Udalaren koordinazio sendoa ahalbidetuko duten egiturak sortu beharra dagoela azpimarratzen du, horrela bultzatu eta garatu ahal izanzen baitira biktima diren emakumeei laguntzeko neurriak, prebentzio programak eta informazio eta sentikortze kanpaina egokiak. Eta nabarmendu egiten du, halaber, beharrezkoa dela prestakuntza ekintzak antolatzea, udal egitura osatzen duten pertsona guztiak sakonago ezagutu ahal izan ditzaten gizartearen izurri hori eta berari ekiteko estrategiak. Zeharkako alor hori egituratzen duen helburu funtsezkoa da administrazioaren koordinazioa indartu eta hobetzea emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan. Horren ondorioz, Antsoaingo Udala honako hiru ekintza hauek lantzen ari da Berdintasunerako Zerbitzuaren bitartez:

- Emakumeen aurkako indarkeria gaietan esku hartu behar duten zerbitzuei prestakuntza ematea udal esparruan.
- Tokiko jarduketa-protokoloa egitea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko, oinarritzat hartuz Nafarroako Gobernuaren Jarduketa Integralerako Protokoloa.
- Lantalde koordinatu bat sortzea, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan lan egiten eta esku hartzen duten tokiko zerbitzuek osatua, protokoloa aplikatu dezan eta hobekuntzarako neurriak proposatu ditzan.

Antsoaingo Udala harreman eredu berri bat eraikitzearen alde ari da lanean, eredu zuzenago eta berdintasunean oinarrituago baten alde, balio patriarkalak eta matxistak behin betikoz baztertze aldera. Udala orobat gogotik ari da iraunkortasunaren alde lanean eta emakumeen aurkako indarkeriak larriki erasotzen dio iraunkortasunari. Toki Administrazioa izanik, Udalaren erantzukizuna funtsezkoa da, biktimekin eta erasotzaileekin harremanetan jartzen den lehen eragilea delako.

Nafarroako Institutuak egindako makroinkestaren arabera (1999 - 2002 - 2006), emakumeen %13,2k indarkeriari egoera objektiboa bizi du bere familia ingurunean. Datu horiek Antsoaingo Udalerrira ekarri gero, kalkula liteke ezen 650 bat emakume izan litezkeela indarkeriaren biktima. Antsoaingo emakumeek bizi duten errealitate hurbiltzeko saio horrek are argiago erakusten du Antsoaingo udal erakundeek erantzun eraginkorra eta integrala eman beharra dutela. Datu horrek ez ditu bere baitan biltzen emakumeek bikote ingurunetik kanpo jasaten dituzten beste indarkeria mota batzuk, hala nola gizarte ingurunean edo lan esparruan gertatzen direnak eta seme-alabek pairatzen dituztenak.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, bakoitza bere alderdiaren ordezkari gisa.

## Erabaki dute

### Lehenbizikoa

Erabaki honen helburua da udal koordinazioa hobetzea hala emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan nola biktimak, emakumeak zein adingabeak, lagundu, artatu eta babesteko jarduketetan.

## Bigarrena

Jarduketak gaurkotzeko eta lanari ekiteko konpromisoa hartu dute, balio berriak bilatu eta indarkeria mota horri buruz gizartean dauden mitoak suntsitzeko, bereizkeria eza eta tratu berdintasuna sustatuz, eta zalantzan jarritz emakumeen eta adingabeen aurkako bereizkeria eta indarkeria ahalbidetzen dituzten botere egiturak eta pribilegioak.

Indarkeria jasaten duten emakumeen eskubideak babesteko konpromisoa hartzen dute, indarkeria hori ezabatzeko borrokan ageriko burua izanik, hala Antsoaingo udalerrian nola beste erakundeekin batera gauzatzen diren ekintzetan. Biktimak adingabeak direnean, haien interes behinena zainduko da beti eta haien eskubideak babestu eta bermatzen direla begiratuko da beti.

## Hirugarrena

1/2004 lege Organikoan aipatutakoez gain, honako hauek ere jo dira biktimatzat: ezein kalte fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomiko eragiten zaien guztiak, kalte horiekin mehatxua jasaten dutenak eta askatasuna hertsatzen edo modu arbitrarioan kentzen zaien guztiak barne, ingurunea familiarra, lanekoa edo soziala izanik eta publikoan nahiz pribatuan gertatu, baita egun indarra duen Kode Penalean delitu edo falta gisa tipifikaturiko guztiak pairatzen dituztenak ere. Gisa horretan Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailearen 2ko 22/2002 Foru Legean ezarritakoaz haratago jo da eta berretsi egin da Nafarroako Komunitateko Erakundearen arteko Akordioa (2010).

Protokolo honetan jarraitu beharreko jardun koordinatuak garatu dira, indarkeria mota ororen biktimgan arreta jarritz, hau da, bikotekidearen indarkeriaren biktimgan (1/2004 Lege Organikoak biktimatzat jotzen dituen horiengan), familia ingurunean erabilitako edozein indarkeriaren biktimak direnengan eta eraso sexualen bat jasan duten guztiengan. Nolanahi ere, protokolo honetan ezarritakoak aurreko atalaren arabera biktimatzat jotzen den edozein pertsona babestuko du eta hartuko du aintzat.

## Laugarrena

Erakunde sinatzaileek protokolo hau baliarazi eta aplikatzeko konpromisoa hartu dute, bertako printzipio gidariei jarraikiz eta bertan azaldutako eskumenei lotuz.

## Bosgarrena

Protokoloa eta neurriak egiazki aplikatzen laguntzeko, ukituriko arloetako profesionalen artean edukia zabaltzeko ekimenak eta prestakuntza ekintza iraunkorrak burutuko dira. Era berean, behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak bereiziko dituzte, protokoloa egiazki abiarazi, ezarri eta jarraitzen dela bermatzeko behar direnak alegia. Antsoainen emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria mota guztiak hobeki ezagutzeko eta haiek prebenitu, artatu eta ezabatzeko baliagarriak diren azterlanak eta ikerlanak lagunduko dituzte, udalerrian garatu beharreko politika eta estrategia publikoen argigarri izan daitezen.

## Seigarrena

Udalerrian emakumeek jasaten duten indarkeriari buruzko informazio zehatzagoa eta fidagarriagoa eskuratzearren, Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Antsoaingo Udal Erregistroa eratuko da<sup>4</sup>. Erregistro pribatua izanen da, protolo honi loturiko profesionalek baizik baliatu ahalko dutena. Biktimak ados egonik bilduko dira datuak eta Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritako printzipioak bermatuko dira.

Antsoaingo indarkeria kasuetan arretea, koordinazioa eta prebentzioa hobetzea da fitxategiaren helburu nagusia. Berdintasunerako Zerbitzuaren arduradunak koordinatuko du fitxategia eta arloari dagozkion politika publikoetan jarraitu beharreko estrategien oinarriak finkatzeko balioko du.

## Zazpigarrena

Protokoloa indarrean dagoen bitartean, abiarazte, jarraipen eta ebaluazio bileretan parte hartzeko konpromisoa hartu dute, koordinazio tresna guztiak behar bezala dabiltzala egiaztatze aldera. Hala, bada, protokoloaren gobernantza bere gain hartuko duen talde bat behar da, sinatzaile guztien ordezkariak osatua. Lehenik eta behin, zerbitzu edo entitate sinatzaile bakoitzean erreferentziako pertsona bat izendatuko da, koordinazio lanen jarraipena egin dezan.

Bigarrenik, bi mahai hauek eratuko dira:

- a) **Koordinazio Teknikorako Mahaia**, honako eginkizun hauek izanen dituena:
1. Protokoloaren funtzionamenduari buruzko azterketa eta diagnostikoa, bai mahaiaren azken bileraz geroztikakoa bai protokoloa abiarazten den egunaz geroztikakoa.
  2. Protokoloa jarraibideak ez betetzeagatik gertatzen diren gorabeheren eta jasotzen diren kexen laburpena egitea eta okerrak zuzentzeko neurriak proposatzea.
  3. Biktimen Erregistroaren funtzionamenduari buruzko bateratze-lana egitea: artatutako kasu kopurua, emandako erantzuna, biktimen egungo egoera, etab.
  4. Urteko txostena osatzea, honako alderdiak zehaztuz: zer arlo hobetu behar diren, protokoloa noraino bete den, arlo bakoitzean zer ekintza burutu diren. Txostenean, orobat, baliabide berriak erabiltzeko eta koordinazio tresnak arintzeko proposamenak jasoko dira, baita bestelako toki zein foru erakundeekin lankidetzak hobetzeko proposamenak ere, protokoloaren koordinazioa eta ezarpena hobetzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak zehaztuz. Alor bakoitzak bere jarduketa esparruari dagokion jarraipen eta ebaluazio txostena igorriko du Berdintasunerako Zerbitzura, Mahai Teknikoaren hurrengo bilera baino hilabete lehenago igorri ere.
  5. Protokoloaren etengabeko eguneratze lana. Testu eguneratu hori berrikusi eta idazteko, funtzionamenduaren diagnostikoari eta proposaturiko hobekuntzei begiratuko zaie. Berrikuspenean honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
    - a. Beste eragile batzuen partaidetza lortzea.
    - b. Ahalmenak eta erantzukizunak mugatzea lortutako emaitzen arabera.
    - c. Azterturiko prozesuak berregituratu eta hobetzea.
    - d. Laguntza tresna berriak ezartzea bai Udalaren bai Foru Komunitatearen esparrukoak.
    - e. Protokoloa ekimen edo araudi berriei egokitzea.
  6. Artaturiko kasuetan buruturiko jarduketak aztertu eta ebaluatzea. Artaturiko biztanleen datuak eta ezaugarriak udal politikak taxutu eta hobetzeko erreferentzia gisa baliatuko dira.

Honako hauek osatuko dute Koordinazio Mahaia:

- Berdintasunerako Batzordeko lehendakaria.
- Berdintasunerako Zerbitzuko ordezkaria (koordinazioa).
- Udaltzaingoaren ordezkaria.
- Gizarte zerbitzu oinarrikoen ordezkaria.

#### 4. Berrikusi beharreko terminologia.

- Osasun Etxeko eta Adimen Osasuneko Zentroko arduradunak.
- Enpleguaren Alorreko arduraduna.
- Ikastetxeetako ordezkaria.
- Tokiko agenda 21eko ordezkaria.

Berdintasunerako Batzordeko lehendakaria izanen da Koordinazio Mahaiko burua eta Antsoaingo Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuko ordezkariak eginen ditu koordinazio lanak. Idazkari tekniko baten laguntza ere eskura daiteke, aktak idatzi, gai zerrenda prestatu, deialdiak egin eta abarretarako.

Mahaian elkarte edo erakundeetako bestelako pertsona batzuek edo arloan adituak direnek ere parte hartu ahalko dute, norberak edo Mahaiaik aldeztatik eskatuz, Akordioaren xedeak ukituriko pertsonen ordezkari gisa. Mahaiaik gutxienez ere hiru bilkura arrunt eginen ditu urtean, eta bilkura bereziak eginen ditu Mahaiko koordinatzaileak edo kideen bi herenek hala eskatzen dutenean. Bertaratutako kideen gehiengo soila aski izanen da erabakiak hartzeko. Berdinketa gertatuz gero, Mahaiko koordinatzaileak izanen du erabakitzearen ahalmena.

**b) Koordinazio Politikorako Mahaia.** Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Batzordeak osatuko du mahai hori. Eginkizunak, honakoak:

1. Protokolo honen xedearekin zerikusia duten erabakiak hartzea.
2. Beste entitate eta erakundeekin akordioak har daitezkeen bultzatzea, zertarako eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta ezabatzeko, biktimak hobeki artatu eta laguntzeko, eta esku hartzen duten profesionalen arteko koordinazioa hobetzeko
3. Esku hartzen duten arlo guztietako profesionalen etengabeko prestakuntza prestatzea.
4. Berdintasunerako Zerbitzuaren urteko txostenaren emaitzak ebaluatzea eta ekintzak hobetzeko proposamenak egitea.
5. Protokoloaren helburuak betetzeko jende, teknika eta finantza arloan behar diren baliabideak bereiztea.

Mahaiaik gutxienez ere bilkura arrunt bat eginen du urtean, eta bilkura bereziak eginen ditu Mahaiko koordinatzaileak edo kideen bi herenek hala eskatzen dutenean. Alkateak koordinatuko du mahaia edo, eskuordetze bidez, Batzordeko lehendakariak Berdintasunerako Zerbitzuaren laguntzaz.

## Zortzigarrena

Antsoaingo Udala, udal koordinazioa hobetzeko abiaburu gisa, udalez gaindiko erakundeekin batera jarduketa koordinatuak egitearen aldekoa da etorkizunean.

## Bederatzigarrena

Protokolo honek indarra hartuko du sinatzen den egunean bertan eta urtebetez egonen da indarrean. Isilbidez lurtaratu, alderdiren batek espresuki uko egiten ez dion bitartean.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakustearren, honako Protokolo hau sinatzen dute lehenago adierazitako tokian eta egunean.


Udal-Akordioa  
Emakumeekiko indarkeriaren aurkako  
toki-ekintzako I. Protokoloa Antsoainen  
Antsoainen, 2011ko azaroaren 9ean

Bildu dira:


Antonio Gila Gila jauna, Antsoaingo Alkatezaren ordezkaritzan; M<sup>a</sup> Jose Elizondo Urtasun Andrea, Osasun, Hezkuntza, Bertintasun, Aniztasun eta gizarte Zerbitzuen Batzordearen ordezkaritzan; Carlos Ceballos Itoiz Jauna, Tokiko Poliziako Burutzaren ordezkaritzan; Koldo Pla Larramendi Jauna, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Iza y Txulapain Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen ordezkaritzan; Lourdes Echeverria Lizarraga Andrea, Antsoaingo Osasun Etxearen ordezkaritzan; Marivi Mendiburu Belzunegui Andrea, Antsoaingo Adimen Osasun Etxearen ordezkaritzan; Ione Urrutia Riezu Andrea, Ezkaba Ikastetxe Publikoaren ordezkaritzan; Eva Istúriz García Andrea, Berdintasunerako Zerbitzuaren ordezkaritzan.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, honako protokolo hau sinatu dute arestian aipatutako data eta lekuan:


Antonio Gila Gila Jauna  
Alkatza




Carlos Ceballos Itoiz Jauna  
Udaltzaingoa



Lourdes Echeverria Lizarraga Andrea  
Antsoaingo Osasun Etxea




Ione Urrutia Riezu Andrea  
Ezkaba Ikastetxe Publikoa




M<sup>a</sup> Jose Elizondo Urtasun Andrea  
Osasun, Hezkuntza, Bertintasun, Aniztasun  
eta gizarte Zerbitzuen Batzardea



Koldo Pla Larramendi Jauna  
Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Iza y Txulapain  
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea



Marivi Mendiburu Belzunegui Andrea  
Antsoaingo Adimen Osasun Etxea



Eva Istúriz García Andrea  
Berdintasunerako Zerbitzua



## 2. Antsoaingo Protokoloa

Protokoloaren ikuspuntua udalerriri lotua dago. Hainbat eragileren konpromisoak jartzen ditu agerian, udalekoak izanik guztiak. Akordio hau, hala ere, udalez gaindiko eragileekin etorkizunean bultzatuko diren koordinazio tresnekin osatuko da, eragile horiek ere hartzen dutelako parte prozesuan, eta hartan aplikatzeko baliagarriak diren bitartekoak dauzkatelako (esparru judizialean, polizialean, hezkuntzan etab.).

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lanean diharduten eragile nagusiek sinatu eta adostu dute protokoloa. Nolanahi ere, beste departamentu eta entitate batzuek ere aplikatu eta ezagutu beharko lukete, baldin eta, gizartean dituzten lekua eta betekizunak direla-eta, halako une jakin batean eginkizun erabakiorra bete badezakete proposatzen diren neurriak aplikatzerakoan.

### 2.1. Zein dira printzipio gidariak?

Protokolo hau oinarritzko zenbait printzipiok arautzen dute. Printzipio horiek nagusitu beharko dira beti eta orientabide gisa erabiliko dira protokoloa aplikatzean. Hona hemen:

#### 1. Arreta osoaren, espezializatuaren eta norberari egokituaren printzipioa.

Emakumeek eta neskatoek indarkeria mota ugari jasaten dituzte beren bizitzaldi osoan zehar, eta indarkeria horiei erantzun espezializatua eman behar zaie.

Gogoetak gogoeta, udal politika guztiek honako hau izan behar dute jomuga: indarkeria jasaten duten emakumeen eta adingabeen egoera latza hobetzea alor guztietako laguntza emanaz.

Biktimen egoerari begiratu beharko zaio beti, ulermena eta enpatia erabiliz haien lagundu eta aholku ematen saiatzeko. Isilpeko eta norberari egokitutako tratamendua nagusituko da beti.

Emakumeak ematen dituen datuak eta hari eskatzen zaion informazioa gainerako zerbitzuekin partekatuta ahal izateko, esku hartzen duten zerbitzuetako pertsonen emakumearen adostasuna idatziz jaso beharko dute beti. Protokolo hau ezartzearekin bat prestatuko da adostasun hori emateko eta informazioa eskatzeko ereduak.

Biktimak erabakiak hartzeko denbora beharko du maiz, hortaz, bateratu egin beharko dira profesionalen aholkuak eta biktima bizitzen ari den prozesuarekiko ulermena.

Printzipio honek berretsi egiten du biktima udal eskumen eta alor guztiak erabiliz laguntzea dela garrantzizkoena, eta xede hori gailendu behar dela beti, eragileen arteko administrazio edo koordinazio afera guztien gainetik. Biktima ezin da inoiz laguntzarik gabe gelditu berari ez dagozkion kontuak direla eta. Bestalde, modu horretan ahalik eta gehien txikiagotzen dira bigarren mailako biktimizazio arriskuak eta prozesuak berak dakartzen kalteak.

Biktimari arreta osoa ematearen printzipioak kontuan hartu behar du ezen biktimiek, emakumea izateagatik jasaten duten bereizkeriaz gain, bestelako bereizkeriak ere jasan ditzaketela beraien sexu-orientazioa, arraza, adina eta abarrak direla eta, eta horrek are ahulago bihurtzen dituela, eta, horrenbestez, haien artatu eta laguntzeko behar diren neurri zehatzak eta bitartekoak erabili beharko direla. Biktimak adingabeak direnean, haien interes behinena zaindu beharko da beti.

## 2. Ekintza printzipioa:

Biktinek norberari egokitutako laguntza espezializatua behar dute prozesu osoan zehar. Makurrena ezer ez egitea da. Hobe da esleituriko eskumenez haratago joatea, laguntza prozesuan hutsune edo hutsarterik uztea baino, unerik larrienen batez ere. Protokolo honetan eragile bakoitzari dagozkion prozesuak definitu dira, baina eskumenen banaketa halakoa izanik ere, arreta prozesu osoari dagozkion erantzukizunak hartu behar dira; hortaz, beharrezkoa edo premiazkoa izanez gero, eragile guztiek dute ekiteko ahalmena.

Printzipio hori premia dagoenean eta sen onez aplikatuko da. Halakoetan, Berdintasunerako Zerbitzua eta esku hartzen duten gainerako eragileak ahalik eta lasterren jarriko dira jakinaren gainean. Printzipio honek garrantzi berezia du ez soilik eragile sinatzaileendako baizik eta are Antsoaingo herritar guztiendako ere. Indarkeria agertzen den aldiro, ekitea da bidea.

## 3. Erantzukizun partekatuaren printzipioa:

Protokoloa eragileek batera ekiteko sistema bat da, eta alferrikakoa litzateke haien artean interakziorik ez balego. Horrenbestez, erantzukizun partekatua dakarten harremanak finkatu dira, protokoloa betetzen dela bermatuko dutenak, baita gainerako eragileen beharrei erantzuten zaiela ere.

## 4. Zeharkakotasun printzipioa:

Udal eremu guztiek hartu behar dute parte emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan. Udal jarduketa guztiei genero ikuspuntua txertatuko zaie. Bereizkeria eza sustatuko da jarduketa guztietan, baita, bereziki, indarkeria prebenitu eta ezabatzea, eta biktimak artatzea ere.

Zerbitzu horiek egiten dituztenak genero kontuetan prestatuak eta sentsibilizatuak daudela bermatuko da, eta etengabeko prestakuntza jasotzen dutela. Ahaleginak eginen dira langileen artean emakumeak ere egon daitezen.

## 5. Prebentzioa:

Indarkeria kasuak saihestea da protokoloaren helburu funtsezkoetako bat.

## 6. Emakumeen ahalduntzea:

Emakumeengan norberaren autonomia sustatuko da, dauzkaten eskubideak eta eskura dituzten baliabideak ezagutaraziz, eta beren independentzia ekonomikoa eta emozioanala lortzen lagunduko dien prestakuntza berariazkoa emanez.



### 3. Eragile arduradunak Antsoaingo emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan. Eginkizuna eta konpromisoak

Emakumearen aurkako indarkeria jendartearen izurria da eta zerikusia du jendeak gizartean duen bizimodua arautzen duten eragile ugariarekin, hala nola segurtasunarekin, osasunarekin, hezkuntzarekin, lanarekin... Eragile horen eginkizunek biktimen bizitzaren arlo ezberdinei eragiten diete eta biktimak lagundu eta artatzeko prozesuko une ezberdinetan hartu behar dute parte.

Horregatik, bi talde nagusitan sailkatu dira, biktima artatzeko prozesu osoaren barnean noiz lagutzen duten kontuan harturik.

- **Lehen mailako laguntzako eragileak.** Garrantzizkoenak dira biktimak artatzerakoan, funtsezko eginzuna baitute lehen jarduketetan:
  - Udaltzaingoa.
  - Osasun eta adimen osasuneko zerbitzuak.
  - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- **Bigarren mailako laguntzako eragileak:** eragile horien jarduna biktima artatu baino lehen eta ondoren burutzen da.
  - Enplegu Zerbitzua.
  - Ikastetxeak.
  - Gazteria Zerbitzua.

Etxebizitza bat izateko aukera ere funtsezkoa da biktimen independentziari begira. Vinsa da alderdi hori kudeatzeko ardura duen entitatea.

Berdintasunerako Zerbitzua da bai eragile nagusia bai koordinazioaren arduraduna. Haren eginkizunak, hortaz, zeharka eragiten dio gainerako eragileen jardunari.

Bestalde, badaude bestelako eragile batzuk, erakunde publikoak ez direnak edo emakumeen aurkako indarkeria ezabatzearekin lotutako zerbitzurik egiten dutenak, baina, hala ere, eginkizun garrantzitsua dutenak Antsoaingo jendartearen parte direlako. Haien ere badute erantzukizuna emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerrarazteko borrokan. Honako hauetaz ari gara: emakumeen elkarteak, irabazi asmorik gabeko erakundeak, kirol klubak, gazte elkarteak eta. Biktima artatzerakoan eginkizun hain nabarmena ez duten arren, haien egitekoa garrantzitsua da halere, eta kasu batzuetan eginkizun erabakiorra izan dezakete inguruko emakume edo adingabeengan indarkeriaren seinaleak hautematean.

#### 3.1. Berdintasunerako Zerbitzua

Berdintasunerako Zerbitzua **Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen, Hezkuntzaren eta Berdintasunaren Alorraren** baitan dago.

Berdintasunerako Zerbitzuaren eginkizun nagusia da Antsoaingo udalerriko gizon eta emakumeen artean berdintasun egiazkoa eta eraginkorra sustatzea, baita udal alor, zerbitzu eta jarduera guztietan genero ikuspegia txertatzea ere. Gisa horretan, berretsi egiten da Berdintasunerako Zerbitzua ardatz nagusia dela udal politika guztietan, bai barnekoetan bai Antsoaingo herritarrei dagozkienetan.

Antsoaingo Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak koordinatzen ditu gainerako eragileek indarkeriaren biktimak artatzeko bideratzen dituzten neurriak. Horrenbestez, protokoloaren funtzionamendu egokia guztien ardura bada ere, Berdintasunerako Zerbitzua arduratzen da koordinazioaz.

Horrela, bada, honako hauek dira protokoloa aplikatuzetik datozkion eginkizunak:

1. Antsoaingo emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal protokoloaren Koordinazio Teknikorako Mahaiaren koordinazio orokorra. Mahai biltzeko deiak egitea, gai zerrenda prestatzea, hobetze proposamenak jasotzea eta gainerako eragileei erantzukizunak esleitzea.
2. Koordinazio Politikorako Mahaiari laguntza ematea.
3. Biktimek jasotzen duten arretaren jarraipen osoa egitea, Antsoaingo lehen mailako eta bigarren mailako eragileen arteko koordinazioa bideratuz.
4. Prozesu eragileetan zer hobetu daitekeen hautematea, eta protokoloa egiazki aplikatzean ikusten diren gabeziak zuzentzea.
5. Protokoloa behar bezala aplikatzeko prestakuntza neurri orokorrak garatu eta abiaraztea. Nolanahi ere, alor bakoitzak egoki juzgatzen dituen ekintzak sustatu ahalko ditu, Berdintasunerako Zerbitzuarekin koordinatuta betiere.
6. Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako neurriak aplikatzerakoan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak identifikatzea: demografikoak, sozialak eta araudiari zein erakundeei dagozkienak.
7. Udal Erregistroaren jarraipena: funtzionamendua, estatistikak, etab.
8. Protokoloaren urteko txostena prestatzea.

Horiez gain, Berdintasunerako Zerbitzuak Tokiko agenda 21eko arduradunekin zuzenean egingen du lan, udal ekintzen parametro egokiak ezartzearen, eta indarkeriaren aurkako borroka eta Antsoaingo iraunkortasuna etengabe uztartzearen.

## 3.2. Udaltzaingoa

Udaltzaingoaren egitekoa lotuta dago biktimen segurtasuna zaintzarekin eta erasotzailearen aurrean haien osotasun pertsonala eta babesa bermatzeko neurriak abian jarri eta neurri horien jarraipena egitearekin.

Maiz udaltzainak dira biktimaren berri duten lehenak, eta, beraz, beren gain dute biktimarekin lehen harremana izatea.

Egun beren protokoloa dute, eta, horretaz gain, bada akordio bat Antsoaingo Udaltzaingoa eta Guardia Zibila eta Nafarroako Foruzaingoa lankidetzan ari daitezenean, eta polizia laguntza ematearren mota honetako delituetan. Bi segurtasun kidego horiek beren eskuetan dituzten egitekoak gorabehera, Antsoaingo Udaltzaingoa jarduketako protokolo hau aplikatuko du, dagozkion egitekoak betetzeko.

Hauek izanen dira bere jarduketak nagusiak:

1. Aurreneurriak hartzeko jarduketak egitea, indarkeriazko beste egintza batzuk gerta ez daitezen; horretarako, poliziak arriskua egokiro baloratuko du. Indarkeriazko egintza gerta daitekeen lekura joatea eta zainketa lanak egitea.
2. Salaketa egiten denetik aurrera, biktimak babestea eta kontrolatzea ea erabakitako neurri judizialak betetzen diren.
3. Egiaztatzeke lana bermatzea. Atestatu ahalik eta osoenak idatziko dira, justiziaren alorreko profesionalen lanean laguntzarren.

Honako hauek dira Antsoaingo Udaltzaingoko egin beharreko lan zehatzak:

1. Indarkeriaren ondoriozko larrialdia gertatzen denean:
  - a) Etxera joatea, herritar batek, biktimak berak edo familiakoren batek abisua emanaz gero.
  - b) Lesioak izanez gero, biktimari Osasun Etxera joaten lagundu. Lesioak azaltzen dituen idazkia salaketari erantsiko zaio.
  - c) Biktimak jasan berri badu eraso fisiko eta/edo sexuala, berehala laguntzea ospitale hurbileneko larrialdi zerbitzura. Eraso sexualak egon badira, oso garrantzitsua da biktima ez dutzatzea eta arropa ez aldatzea. Gainera, ezin du ezer jan edo edan, eraso sexuala ahoaren bidezkoa izan bada. Helburua da behar diren probak eskuratzea, erasotzailea epailearen esku uzteko.
2. Biktimaren deklarazioa jasoko da, hark bere osasun behar oinarritzkoak ase ondoan.
3. Salaketa jasotzea:
  - a) Salaketa jaso baino lehen, aholkularitza juridiko doakoaren zerbitzua eskainiko zaio biktimari, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren etengabeko zaintzako zerbitzuaren bidez; eta aholkularitza psikologiko doakoaren zerbitzua, Justiziako Gizarte Zerbitzuak egiten baitu lan hori. Biktimak baliabide horiek erabili nahi ez baditu, salaketa aurkezteak zer ondorio izanen dituen jakinaraziko zaio eta babesteko agindua eskatzeko aukeraren berri emanen.
  - b) Haren deklarazioa toki pribatu eta lasai batean jasoko da. Komenigarria da hori udaltzain batek egitea, baina, betiere, pertsona espezializatuek, gai honetako prestakuntza berezia dutenek.
  - c) Saiatu beharko da biktima, erasotzailea eta familia espazio fisiko berean egon ez daitezen.
4. Biktimarendako laguntza:
  - a) Beharrezkoa bada edo biktimak eskatzen badu, hari eta haren ardurapeko seme-alabei lagundu egingen zaie beste etxe batera aldi baterako aldatzeko prozesuan.
  - b) Ahalik eta diskreziorik handiena lortzea komeni da, ibilgailu arruntak edo itxura ofizialik gabeak erabilia.
5. Gizarte zerbitzuen informazioa eta haietara bideratzea.
  - a) Eskura dituen baliabideen eta laguntza zerbitzuen berri emanen zaio biktimari: Antsoaingo Gizarte Zerbitzuak, osasunekoak, enpleguak eta abar.
6. Ikerketa eta atestatuaren idazketa.

- a) Bide guztiak erabiliko dira, indarkeriazko egintza frogatzeko informazioa eskuratzeko.
  - b) Dauden aurrekariak aipatuko dira.
  - c) Begiz ikusatzeko eta biktimari deklarazioa jasotzeko eginbideak, ahal dela, argazkien eta beste bitarteko tekniko batzuen bidez dokumentatuko dira.
  - d) Erasotzaileak armak edukitzeko baimenik ba ote duen ikertuko da.
7. Atestatuak igortzea eta babesteko agindua eskatzea Emakumearen gaineko Indarkeriaren Auzietarako Epaitegari.
8. Poliziak arriskua baloratzea eta babesteko neurri judizialak kontrolatzea.
- a) Poliziak kasu bakoitzean arriskua baloratzea.
  - b) Aztertzea ebazpen judizialaren edukia eta ebazpena benetan betetzea lortzea dakarten neurriak (espazioa eta denbora, babesteko aginduaren urraketa).
  - c) Delako arrisku egoerarako egokiak diren babes neurriak hartzea.
  - d) Epaitegietara joatea egindako jarduketan berri ematera.
  - e) Jarraipen edo kontrol txostenak egitea.

### 3.3. Osasun zerbitzuak

Osasun zerbitzuek (familiako medikua, ginekologoa eta abar), haien jardunaren izaera dela-eta, artatzen dituzten emakumeetako batzuk indarkeriazko egoera jasaten ari direla antzeman dezakete kasu askotan. Eta funtsezkoak dira azkar antzematea eta prebentzioa, baita abordatzea eta biktimek osasuna berreskuratzea ere. Osasun langileen prestakuntza espezializatua jaso behar dute etengabe.

Gainera, egiten diren mediku txostenak delituaren froga dira epaitegian, eta, hortaz, txosten horiek ahalik eta zehatzenak izan beharko dute.

Egiten dituzten urratsetan honako arau hauetan xedatua beteko dute: Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioa eta genero indarkeriaren aurrean izan beharreko osasun jarduna erakusten duten protokolo komun guztiak.

Osasun zerbitzuak behartuta daude lesioen txostena aurkeztera eta biktimak jasaten ari diren indarkeriazko egoera agerian jartzera. Elkarrizketa klinikoak egiten dira konfiantzazko giro egoki batean. Ahal delarik, biktimen osasun azterketa osasun langile emakumeek egiten dute leku pribatuan. Osasun zerbitzuak, lanean, hainbat egoerarekin topatzen ahal dira.

- a) Indarkeriaren arrasto arinak, oinarri sendoko edo ez hain sendoko susmoa sortzen dutenak, nahiz eta biktimek ukatu. Kasu horretan, osasun etxeko gizarte laneko unitateak kontu horren berri emanen die berdintasunerako zerbitzuari eta Gizarte Zerbitzuei, kasuaren jarraipena egin dezaten, benetan indarkeriazko kasua izan den antzemateko, eta jarraipena egiteko ikustaldien aukera eskainiko zaio biktimari. Gainera, udalerrian eskura dituen baliabideen eta zerbitzuen berri emanen zaio.
- b) Indarkeriaren arrasto larriak, gertatutakoa erakusten dutenak. Indarkeria jasan duela onartzen badu biktimak, azterketa xehea egiten zaio.

Kasu horretan, osasun zerbitzuek horren berri emanen diote medikuari eta, gainera, Antsoaingo Udaltzaingoari eta

Berdintasunerako Zerbitzuari. Osasun etxeko gizarte laneko unitateak behar den koordinazioa eginen du larrialdiko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoekin, beharra izanez gero.

Biktimak ez baditu gertakariak salatu nahi eta ez badu babesteko agindua eskatu nahi, eskueran dituen babes mekanismoen berri emanen zaio, baita azaldu ere profesionalen eginbeharra dela Epaitegiari gertakarien berri ematea.

Eraso sexuala izanez gero, ospitale hurbilenera igorriko da, baldin eta aurreko 72 orduetan gertatu bada. 72 orduak igaro badira, laguntza emanen zaio eta lesioen txostena beteko. Txosten hori biktimari irakurri eta kopia bat emanen zaio hari. Gero, Emakumearen gaineko Indarkeriaren Auzietarako Epaitegira edo Guardiako Epaitegira igorriko da.

### Adimen Osasuneko Zentroa

Osasun Etxetik bidalitako pertsonak artatzen ditu Antsoaingo Adimen Osasuneko Zentroak. Osasun zerbitzuen jarduketa eta protokolo berak izanen ditu.

Indarkeriak eta abusuek arriskua handitzen dute depresioa izateko, baita trauma ondoko estres nahasmendua, insomnioa, elikadura ohituren nahasmendua eta oinaze emozionala ere. Beraz, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu askotan, biktima bat Adimen Osasuneko Zentrora iristen ahal da aldeztatik diagnostikorik edo detekziorik egon gabe.

Buru-nahasmendu larria diagnostikaturik duten emakumeen gainean egindako indarkeriak arreta berezia eskatzen du; izan ere, eritasun hori bera okertuz joaten denez, emakume horiek erasotzen errazagoak dira eta ez dira gai haien osotasun pertsonala eta autonomia errespetarazteko.

## 3.4. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

1/2004 Lege Organikoaren 19. artikuluan, gizarte laguntza integrala izateko eskubidea bermatzen zaie genero indarkeriaren biktima izandako emakumeei, bereziki honako gizarte zerbitzu hauek erabiltzeko: laguntza zerbitzua, larrialdietakoa, babes eta harrera jasotzekoa eta berreskuratze osokoa.

Batzuetan, biktimei harrera egiten dien lehen eragilea dira, biktima horietako batzuek onartzen dutelarik biktima direla, baina beste batzuek ukatzen dutelarik. Arreta eta laguntza lehentasunezkoa eta berariazkoa da, batez ere biktimak bestelako bereizkeriak ere jasaten baditu.

Biktima bat Mankomunitateko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetara joaten bada, tratamendu deberdina izanen du, jakinarazpena zer bidetik heltzen den.

### 1) Jada osasun etxean artatu duten biktima iristen denean.

Aldez aurretik polizia eta osasun eginbideak egin direneko indarkeriazko kasua jasotzen denean, lehentasunezko laguntza pertsonalizatu egokia emanen zaio. Antsoaingo Berdintasunerako Zerbitzuarekin etengabeko koordinazioa eginez, gizarte zerbitzu oinarrizkoek dituzten tresna guztiak emanen zaizkio, eta elkarren arteko babes neurriak ezarriko dira udaleko eta udalaz gaindiko beste eragile batzuekin batera; bereziki Berdintasunerako Zerbitzuarekin, Enplegu Zerbitzuarekin eta Udaltzaingoarekin.

Lehen elkarrizketa egin eta egun batzuk igaro ondoren, biktimaren segurtasuna arriskuan dagoela erakusten duen

zantzurik txikiena hautamenez gero, oso garrantzitsua da azaltzea babesteko agindua eskatzeko aukera dagoela eta adieraztea horrek zer ondorio izanen dituen berarentzat eta erasotzailearentzat.

Biktimari ikusaraziko zaio oso garrantzitsua dela aholkularitza ona jasotzea prozesu osoan zehar, ahalik eta hobekien erabili ahal izateko udalaren eta udalaz gaindiko alorretan biktimaren eskura jarri diren baliabideak.

Lehen elkarrizketaren xedea izanen da baliabide eta zerbitzu guztien berri ematea, gizarte laguntza osoa jasoko duela bermatzearen. Laburki azalduko zaio zein diren bere eskubideak, babesteko agindua eskatzeko aukera duela (agindu horrek salaketa izatea duela eta ondorio batzuk dakartzala) eta zein diren izapide judizialak; gainera, adieraziko zaio aholkularitza psikologikoa eta juridikoa jasotzea komeni zaiola (Emakumei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzua).

Azalduko da nola, eskubide batzuk erabiltzeko, beharrezkoa den indarkeriaren biktimaren izaera izatea, dela babesteko aginduaren bitartez dela Ministerio fiskalaren aldeko txostenaren bitartez.

Posible bada ere Gizarte Zerbitzuetan babesteko aginduaren eskaera betetzea, aholkatuko zaie Udaltzaingoan ere eskaera egiteko. Aukera hori baztertzen badu, gizarte langileak eskaera hori bete eta kopia bat emanen dio, eta jatorrizkoa Emakumearen gaineko Indarkeriaren Auzietarako Epaitegira edo Guardiako Epaitegira igorriko du.

Biktimak nahi badu, biktimei laguntza ematen diharduten emakume elkarteekin harremanetan jarriko dute.

Zerbitzu honek kasuaren jarraipena egingen du prozesu osoan zehar, biktimei laguntzeko udaleko eta udalaz gaindiko beste zerbitzuekin etengabe koordinaturik.

## 2) Indarkeria berriki jasan duen baten etorrera:

Berriki gertaturiko indarkeriazko kasu batean, indarkeria fisikoa jasan izanaren arrastoak edo susmoak daudelarik, Antsoaingo osasun etxera lagunduko zaio biktimari eta aholkatuko zaio osasun langilei eska diezaiela lesioen txostena, gero salaketan aurkeztu ahal dezan. Gainera, Antsoaingo Udaltzaingoari jakinaraziko zaio berehala, indarkeriazko beste jazarraldi bat izateko arriskua ebaluatzeko eta biktimaren segurtasun pertsonala bermatzeko.

Indarkeriaren arrasto larriak badaude, ospitale hurbileneko larrialdietako zerbitzura lagunduko zaio eta era berean jokatuko da. Gainera, Antsoaingo Udaltzaingoari jakinaraziko zaio, protokoloan eta polizia prozedura ohikoetan aurreikusita dagoen bezala jardun dezaten.

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak arduratuko dira, gainera, seme-alaba txikiei babesa emateaz, halakorik izanez gero, eta babes baliabide batera jotzeko bidea erraztuko zaie, Antsoaingo udalerrian egon edo ez egon.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuek kasuaren berri emanen diote Antsoaingo Berdintasunerako Zerbitzuari, ezagut dezan eta biktimari laguntzeko neurriak era koordinatuan ezar daitezzen.

## 3.5. Enplegu Zerbitzua

Batzuetan, erasotzailearekiko mendetasun ekonomikoa dute indarkeriaren biktimek, eta horrek asko zailtzen du mendetasunik askatzeko prozesua edo etxetik alde egitekoa. Horretarako, garrantzitsua da emakumeak lan merkatuan sartu eta enplegu bat eskuratzea erraztuko duten neurriak ezarri eta egintzak egitea. Gisa horretan, hain garrantzitsua den independentzia ekonomikoa lortzea erraztuko da, erasotzailearekiko urruntze emozional eta

ekonomikoa bermatzeko. Hori hain funtsezkoa izanik, Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak zenbait neurri ezarri dituzte, enpresariak indarkeriaren biktimak kontratatzea bultzatzeko. Antsoainen, behar diren bide eta neurriak ezarri behar dira, indarkeriaren biktimek lehentasuna izan dezaten lanpostuak lortu eta prestakuntza jasotzerakoan. Aholku eskaera bat jasoz gero, biktimaren inguruabar guztiak izanen dira kontuan.

- Zer kualifikazio maila eta zer lan esperientzia dituen.
- Emakumearen egoera emozional eta psikologikoa.
- Erasotzailearengandik ahalik eta gehien urrundu beharra.

Enplegu Zerbitzuak txosten bat igorriko dio Berdintasunerako Zerbitzuari, Antsoaingo biktimen alde abiarazitako lan bilaketa prozesuei buruz eta lan munduan sartzeko egindako bideari buruz.

### 3.6. Ikastetxeak

Zalantzarik gabe, hezkuntzaren esparruan emakumeen aurkako indarkeriaren kasuak gerta daitezke, emakumeek pertsona askorekin dutelako harremana eta esparru hori Antsoaingo gizarte sarean erabat sartuta dagoelako.

Hezkuntzaren esparruan pertsona asko elkartzen direnez gero, ikasleak, familietakoak, irakasleak eta ikastetxeko langileak, liketeena da indarkeriazko kasuak gertatzea edo, gutxienez, horien berri izatea.

Hezkidetzaren alorreko prestakuntza eta zabalpen jarduerak eginen dituzte ikastetxeek, oinarrizko eskubideei eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz.

Honako hauek dira ikastetxe batean agertzen ahal diren indarkeriak:

1. Ikasle batek indarkeria erabiltzea.
2. Ikastetxeko langile batek indarkeria erabiltzea.
3. Ikasle neska batek familian jasaten duen indarkeria.
4. Langile emakume baten edo ama baten aurkako indarkeria.

Emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten gainerako eragileek bezala, ikastetxeek gertakariaren berri eman behar diote Antsoaingo Berdintasunerako Zerbitzuari, laguntzeko baliabideak era koordinatuan abiarazteko. Nafarroako Komunitateko Erakundeen arteko II Akordioan ezarritakoaren arabera jokatuko da. Hona hemen haren diagrama:

Egoeraren berri izatea: ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraztea eta OI2ra edo Antsoaingo Udaltzaingora deitzea, kasuaren larritasuna nolakoa den kontuan hartuta.

Ikasle baten indarkeria: informazioa jaso, azterketa orientazioarekin eta premiazko neurriekin, banan-banan egindako elkarrizketak eta familiarekin egindakoak, esku-hartze plana, txostena eta neurri zuzentzaileen proposamena, inplikaturako familiei informazioa ematea, jarraipena eta ebaluazioa.

Ikastetxeko langileen indarkeria: zuzendaritzari jakinaraztea, hezkuntzako ikuskapenari jakinaraztea.

Familiako baten indarkeria: Antsoaingo Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea, agintari judizialei eta fiskalei jakinaraztea, hezkuntzako ikuskapenari jakinaraztea.

Langile emakume baten edo ama baten aurkako indarkeria: Antsoaingo Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea, agintari judizialei eta fiskalei jakinaraztea.

### 3.7. Gazteriaren Etxea

Antsoaingo Gazteriaren Etxeak zuzenean dihardu udalerriko gazteekin. Datuek erakusten dute gero eta pertsona gazteagoek jasaten dituztela indarkeriazko egintzak. Indarkeria nozitzen duten haur eta nerabeek oraindik ere ez dute lortu behar luketen lekua politika publikoen agendetan.

Beste pertsona batzuekiko mendetasuna dutenez eta oraindik heldu gabe daudenez, neskak (eta mutilak etxeetan) eta gazteak erraz asko izan daitezke indarkeriaren biktima. Adin haueetan, indarkeria mota batzuk ezkutatu egiten zaizkio gizarteari, etxeetan gordetzen dira: bortxaketa, sexu abusu motak batzuk, sexu esplotazio komertziala eta pertsonen salerosketa.

Gazteriaren Etxeak honako egiteko hauek izanen ditu:

- Indarkeria kasu baten berri izanez gero, biktimarekin mintzatuko da eta Gizarte Zerbitzuetara igorriko du. Ez badu joan nahi, eskura dituen baliabideen eta zerbitzuen zerrenda eman eta dituen eskubideak azalduko zaizkio.
- Berdintasunerako Zerbitzuari eta Gizarte Zerbitzu Oinarritzoei horren berri emanen die eta jarraipena egingen du.
- Larrialdiko kasua izanez gero, 112ra eta Udaltzaingora deituko du.

Akordio honetatik sortzen diren konpromisoez gain, gazteria aldatzeko lana egingen dute, emakumeen aurkako indarkeriaren azpian daude mito eta ideia okerrak deuseztatzeko, baita gazteari irakatsi ere indarkeria fisiko, psikologiko, sozial eta sexuala hautematen eta ezagutzen, gaztea bera denean eragilea edo indarkeria jasaten duena, familian, elkarteetan, kirol edo jolas entitateetan, ikastetxeetan edo bikote harremanetan (dating violence).

### 3.8. Beste entitate batzuk

Emakumeen aurkako indarkeria izurri bat da, eta gizarte osoak du hori errotik erazteko ardura. Horregatik, gizarte eragile batzuen lana eta emakumeen aurkako indarkeria zuzenki lotuta ez egon arren, eragile horiek ere parte hartu beharra dute aldeaz edo moldez protokolo honetan.



Irabazi asmorik gabeko elkarrekin, kirol klubez, emakumeen elkarrekin eta beste entitate batzuek ari gara. Horiek Antsoaingo gizarte sarean sartuta daudenez, protokolo honetako koordinazio mekanismo nagusiak ezagutu behar dituzte, baita beraiek protokolo honen barruan duten lekua ere.

Antsoaingo gizartearen rol bat dutenez gero, emakumeen aurkako indarkeria deseuztatzeko borrokan jardun beharra dute, ekiteko dituzten ahalbideen esparruan, ahalmen hori elkarrekin auzeraren arabera izan behar delarik. Hori dela kausa, garrantzitsua da elkarrekin horiek jakitea bai protokoloa existitzen dela bai horren baitan egiteko batzuk dituztela. Horregatik, behar adinako prestakuntza oinarritzakoa izan behar dute, protokoloa eratzeko edo hartan esku hartzen duten eragileekin artean identifikatu eta kokatzeko beren burua, baita indarkeriazko kasu baten berri izandakoan zer egin behar duten jakiteko ere.

Elkarrekin, oro har, rol oso zehatza izan behar dute protokoloaren barruan, eta haien egitekoak bakarrik hasierako eta bukaerako urratsetan kokatu dira, eragile sinatzaileek egin beharreko neurri guztien multzoaren baitan.

Antsoaingo udalerriko elkarrekin honako hiru konpromiso hauek beren gain hartzea komeni da:

- **Indarkeria kasuak identifikatzea:** emakumeen aurkako indarkeria kasu baten berri izatean, elkarrekin kideak, haien familietakoak, gurasoak eta abar tartean badaude. Horren berri eman beharra dute, larritasunaren arabera, Gizarte Zerbitzu Oinarritzakoei eta Antsoaingo Udaltzaingori, haien izan behar baitira neurriak abian jarriko dituztenak.
  - a) Biktimak oso hurbil badu arriskua edo indarkeria kasua gertatu berria bada, 112ra edo Antsoaingo Udaltzaingori deituko zaio.
  - b) Biktimak arriskua ez badu oso hurbil, baina, hala ere, indarkeria badagoela jakinez gero, Antsoaingo Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie.
- Biktimei edo familietakoei **azalduko zaie udal eta foru erakundeek baliabide batzuk jarri dituztela** haien eskura, bizitza pertsonaleko eta laneko esparruetan babesa emateko: segurtasuna, etxebizitza, enplegua etab.
- **Biktima Antsoaingo gizarte bizitzan sartzea:** zerbitzu publikoen laguntza jasotzen ari diren biktimen kasuan, aipatutako elkarrekin haien sarrera erraztu behar dute, haien bergizarteratzea, biktimizazio prozesuaren ondoren, posible edo komenigarri denean. Kontuan hartuko dira bai biktimen eta adingabeen egoera psikologiko ahula bai Antsoaingo gizarte bizitzan sartzeak dakartzan alderdi positiboak. Horretarako, Antsoaingo Gizarte Zerbitzuekin eta Berdintasunerako Zerbitzuekin koordinatuko dira, elkarrekin jarduteko babesa ematen.

Indarkeria kasu baten berri izatea: biktimei laguntzeko baliabideak badaudela azaldu, Udaltzaingori edo Gizarte Zerbitzuei jakinarazi, kasuaren larritasunaren arabera, biktima Antsoaingo gizarte bizitzan sartu.





